



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO HORNIDURA LABORATEGIRAKO MATERIAL SUNTSIKORRAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3285

Erregulazio harmonizatuaren arabeko kontratuak	☐ SI ☒ NO
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Estibaliz Alda Tobar
4.- Kontratazio- Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Hornidura Laborategirako (Beteluri) material suntsikorraren hornidura.

2.- Bete beharreko premiak: Plegu honen xedea hornikuntza-laborategirako material suntsikorraren hornidura kontratatzea da, bai eta hornikuntza horretarako kontratuak bete beharreko kondizio teknikoak ezartzea eta kontratistak hori behar bezala gauzatuko dela bermatzeko dituen konpromisoen irismena zehaztea ere. Araztegiaren jarraipenari dagokionez, kontsumo publikorako osasun-ikuspegitik eta kutsadura-mailaren ikuspegitik, kontratu horrek aukera ematen dio Hornidura Laborategiari erosteko ur-kalitatea definitzeko ur-analisia egiteko beharrezkoa den materiala.

3.- Lotetan banatzea: ☒ Bai ☐ Ez

Lotearen deskribapena eta zenbatekoa:

LOTEA	IZENA	GEHIENEN EPEA (urte bat)
1	Erreaktibo kimikoak	62.700,00



B.- KONTRATUAREN XEDEA

2	Beirazko eta plastikozko materiala	50.000,00
3	Erreferentziazko materiala	50.600,00
4	Askotariko materialak	30.000,00
	GUZTIRA	193.300,00

4.- CPV: 33696500-0 Laborategiko errektiboak

5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐ BAI ☒ EZ

6.- Izaera juridikoa:

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZa salbuetsita)

**EHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU
MILA HIRUREHUN EURO (193.300,00
€), BEZik GABE.**

1. Errektibo kimikoak: 62.700,00 €
2. Beirazko eta plastikozko materiala: 50.000,00 €
3. Erreferentziazko materiala: 50.600,00 €
4. Askotariko materialak: 30.000,00 €

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 386.600,00 euro

Loteak: ☒ BAI ☐ EZ

Loteen kalkulaturako balioa:

LOTEA	IZENA	BALIO ZENBATETSIA
1	Errektibo kimikoak	125.400,00
2	Beirazko eta plastikozko materiala	100.000,00
3	Erreferentziazko materiala	101.200,00
4	Askotariko materialak	60.000,00
	GUZTIRA	386.600,00

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa ☒ Unitate-prezioak



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren aurrekontuko urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 16913,22113.

- | | |
|-----------|--|
| 1. lotea: | 2026. urtea: 20.900,00 euro, BEZik gabe.
2027. urtea: 41.800,00 euro, BEZik gabe. |
| 2. lotea: | 2026. urtea: 16.666,67 euro, BEZik gabe.
2027. urtea: 33.333,33 euro, BEZik gabe. |
| 3. lotea: | 2026. urtea: 16.866,66 euro, BEZik gabe.
2027. urtea: 33.733,34 euro, BEZik gabe. |
| 4. lotea: | 2026. urtea: 10.000,00 euro, BEZik gabe.
2027. urtea: 20.000,00 euro, BEZik gabe. |

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI ☒ Ez

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiriaren bidez, hilean gauzatutako unitateei proposatutako prezio unitarioak aplikatuta. Hilabete bakoitzeko azken lanegunean hil horretan egindako lan-zerrenda baloratua eman beharko zaio Kontratuaren Zuzendaritzari.

8.-Konturako ordainketak: Kontratuaren Zuzendaritzak hilabete baino gehiagoko entrega-epeak dituzten lanen konturako ordainketak egin ahal izango ditu.

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupena guztira: URTE (1) BAT

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ; URTE BATEKO (1) LUZAPENA.

4.- Berme-epea: Ez da aplikatu behar

5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPREN INSTALAZIOAK

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin.

1. Erreaktibo kimikoak: 62.700,00 €
2. Beirazko eta plastikozko materiala: 50.000,00 €
3. Erreferentziazko materiala: 50.600,00 €
4. Askotariko materialak: 30.000,00 €

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Gehienez ere azken hiru urteetan egindako hornidura-lan nagusien zerrenda, kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko hornidura-lanena. Zerrenda horretan, zenbatekoa, data eta horien hartzaile publikoa zein pribatua aipatuko dira, eta kontuan hartu beharko da gauzatze handieneko urtean horien zenbateko metatua urteko kontratuaren batezbesteko urteko kopuruaren ehuneko 70 edo gehiago izatea.
- Instalazio teknikoaren eta kalitatea bermatze aldera erabilitako neurrien eta aztertu eta ikertzeko enpresak dituen bitartekoen deskribapena. Lizitatzailerak honako hauek egiaztatu beharko ditu:
 - Gutxienez kontratuaren xede den jarduerarako lokal operatibo bat izatea, gutxienez 50 m²-ko azalarekin (biltegia, laborategia edo eremu teknikoa).
 - Adierazi kokapena, azalera eta funtsezko ekipamendua
 - Instalazioen barrualdeko bi argazki aurkeztea.
 - ISO 9001 ziurtagiriak edo, ziurtagiri hori izan ezean, kalitate-kontrolleko barne-prozeduraren deskribapena, honako hauek adierazita:
 - izendatutako arduraduna,
 - kontrol-faseak (harrera – egiaztapena – bidalketa),
 - egiaztapenen-maiztasuna.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Kaudimen tekniko eta profesionalean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietan. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.



ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioei loturiko irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa

BALIO JUDIZIOEI LOTURIKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Memoria teknikoak, eskaintako horniduren deskribapenarekin.
- Hornigaiak entregatzeko kontratistak eskaintzen dituen bitartekoen eskuragarritasunaren deskribapena.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Kontratistek eskaintza ekonomikoan zehaztu beharko dituzte hornitu beharreko artikuluen guztien prezio unitarioak. I. eranskineko Excel formatuko zerrendak behar bezala beteko dituzte, zutabeen kokapena mantenduta. Zerrendak prezio unitarioekin osatu behar dira, zenbatetsitako kontsumoen prezio horren zenbatekoa kalkulatu, baita lote bakoitzeko zenbateko osoarekin ere (gelaxkak urdinez bereizita).

Artikulu jakin baten kontsumo erreala zerrendan adierazitako kontsumo zenbatetsia baino txikiagoa bada ere, ezingo da kontratistak aurkeztutako eskaintzan zehaztutako prezio unitarioa aldatu, beraz, prezio horiek aldaezinak izango dira kontratuaren indarraldian.

Eskaintako prezio unitarioetan kontzeptu guztiak sartu beharko dira, bai garraioa, bai Hornidura Laborategian entregatzea (Beteluri), BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoak zehazteko, lote bakoitzean eskaintako material suntsikorraren zenbateko osoa kalkulatu da. Zenbateko hori lortzeko, artikuluen indibidual bakoitzaren prezio unitarioa artikuluen horren urteko kontsumo zenbatetsiarekin biderkatu da, eta lote bakoitzeko zerrendetan jasotako artikuluen guztiei dagokien guztizkoa batuko da.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentea:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK 70 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez ere 70 puntu lor daitezke.

Eskaintzarik merkeenari emango zaio puntuaziorik handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko txikienaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaizkion puntuen guztizko kopuruarekin biderkatzea.

Hau da:

(Ob / OI) x z

Non:

Ob = eskaintza ekonomiko txikiena

OI = baloratzeke dagoen lizitatzaillearen eskaera

z = honako irizpideari aplikagarri zaizkion puntu guztiak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK 30 PUNTU

- Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia (20 puntu), honela banatuta:
 - I. eranskineko zerrendetan agertzen diren horniduren proposamen teknikoa, eta eskainitako marken balorazioa, edo, hala badagokio, eskainitako marken baliokidetasunak (10 puntu).
 - Proposatutako zerbitzuaren egokitasuna. Antolaketa eta erantzuteko denborak. Larrialdietarako prestasuna (10 puntu).
- Kontratuaren eskura jartzen diren bitarteko teknikoak (10 puntu), honako



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

hauek barne::

- Kontratuari esleitutako bitarteko teknikoak eta antolakuntzakoak.
- Lantaldearen antolakuntza.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko, hurrenkera honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino merkeagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino merkeagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzaille daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batezbestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Ez da aplikatu behar.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.



M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

- Artikuluen eta kontsumo zenbatetsien zerrenda duen I. eranskinetako edozein materialek gehienez zazpi (7) Lanegunak epea izan beharko du entregatzeko, eskaera jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Entrega-epe hori ezin bada bete, kontratistak atzerapenaren arrazoiak berri eman beharko dio Partzuergoari, bai eta jasotzeko aurreikusitako epe berriaren berri ere. Partzuergoak onartu ondoren, kontratu-izaera izango du, eta adostutako epea ez betetzeagatik % 10eko zigorrak aplikatu ahal izango dira ez-betetzea gertatu den hilabetearen hileko ziurtagirian.
- Ordainketa-erregimena ez betetzeak, hileko zerrenda baloratuak epe barruan betetzeari dagokienez, % 10eko zigorra ekarriko du ez-betetzea gertatu den hilabetearen hileko ziurtagirian, eta 6 hilabete baino gehiagoz behin eta berriz betetzen ez badira, kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.
- Fakturazio-prozesuan behin eta berriz egindako akatsak: Eskaintako prezio unitarioetara egokitzen ez diren fakturak, bat ez datozen balioekin, BEZa biribiltzearekin arazoak dituztenekin eta abarrekin hiru hilabetez jarraian egiten badira, % 5eko zigorra ezarriko da akatsak egon diren aurreko hiru ondoz ondoko fakturen hurrengo ordainketan.
- Hileko hiru entregatan albaranak aurkeztzen ez badira, intzidentzia detektatu den azken hilabeteko hileroko ziurtagiriaren ordainketan % 5eko zigorra ezarriko da.
- Materiala entregatzeak eskatutako zehaztapenak betetzen ez dituela edo akastuna dela hautematen bada, eta enpresa adjudikaziodunak zazpi lanegunetan ez badu akatsa kargu gehigarririk gabe zuzendu, % 5eko zigorra ezarriko zaio material hori entregatzeari dagokion hileko ziurtagiria ordaintzeari.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzailerak arrisku profesionalengatik erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ



KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Kontratistak, egin beharreko lanen gauzatzean, hauetan guztietan jasotako betekizunak bete beharko ditu: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko Legean, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arauketa-esparruaren aldaketan (54/2003 Legea), 171/2004 Errege Dekretuan eta Lan Arriskuen Prebentzioaren arloan aplikatu beharreko arau guztietan jasotakoak.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratuaren adjudikaziodunak kontratistaren ordezkari bat izendatuko du, eta adjudikazioduna BBUPrekin hitz egiteaz eta bere lantaldea zuzentzeaz arduratuko da. Halaber, lanen garapenean sortzen diren zalantzak argitzeko kontsultak egingo ditu.

